



“Lifting tratamendurik onena egin dudala aitortu beharko dut”

Miren Azkarate | Maite zaitut

Ibarretxerekin batera desagertu zen.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Kontxo, irribarretsu zatoz. On egin dizute azken bi urteek.

Aspertzeko astirik ez dut izan, baina guztiak esaten didate beste modu bateko aurpegia dudala orain. Lifting tratamendurik onena egin dudala aitortu beharko dut.

Ahaztuta daude dagoeneko Guggenheim edota Balenciaga komisioak?

Ahaztuta ez, baina denborak arrazoi bete eman didan satisfazioa bai, badut. Argi geratu da Guggenheimen ez zela legez kontra jokatu dolarrak erostean. Eta Balenciaga Museoa atea irekitzen ikusi dugu guk 2007an eta 2008an hartutako neurriei jarraituz.

Ahaztuta dagoen bat, Praileaitz.

Hori bai izan dela aldaketa nabarmena! 500 metroko babes eskatzen zutenak, hamabost metro gehiagokoa arautuaz dekretu berrian!

Eta ahaztuta baino eskertuta, seguru, Kepa Junkera.

Ahaztuta inola ere ez, hortxe daudelako hiru CD eder askoak nahi beste bider entzuteko. Aurkeztutako egitasmoa ondo asko bete hor ere.

Udako top kanta bat duen lehen politikaria izango zara.

Arrakasta izan zuena, gainera. Eskertzekoa da merezimendu guztia niri bakarrik ematea. Nahiago nukeen benetan 700.000 euro izan banitu egitasmo jakin bat babesteko!

Sentitzen dut diruaren zatirik handiena jarri eta kantarik eta osperik gabe geratu denarengatik.

Esker txarreko langintza, politikariarena...

Ez, ez da esker txarrekoa. Kritiken ondoan laudorioak ere izaten dira, kalean hurbiltzen zaizun jendea... Eta, batez ere, zeure kontzientziarekin lasai egotea izaten da konpentsaziorik onena.

Oraingoek ere gaizki egiten dutela esango didazu orain.

Oraingoek ere gauza batzuk ondo egingo dituzte eta beste batzuk ez. Kontua da zeri erreparatu nahi zaion. Eta horretan kazetariok ohikoa duzue arazoak non egon ziren oroitaraztea. Oso bakanka ikusten zaituztet ongi egindako lanak nabarmentzen.

Kasu, oraingoek ekarriko digute bakea.

Bakea guztion artean ekarri beharko dugu. Baita normalizazioa ere. Azken hauteskundeetako emaitzei begiratu baino ez dago. Gizartearen zati bati politikarako atea itxita nekez lortuko ditugu biak.

Lehen lerroa utzi ondorenean esaten dira horrelakoak.

Donostiako Udalean zinegotzia naiz. Nahi den lerroan, baina herri honek jende asko beharko du, guztiok beharko gaitu, modu batean edo bestean “politikagintzan” hurrengo urteetan. ■